

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**Behin betiko onestea Vírgala Mayor / Birgara Goien kontzejuaren izena eta Vírgala Menor / Birgara Barren herriaren izena aurrerantzean Vírgala Mayor / Birgaragoien eta Vírgala Menor / Birgarabarren izatea, hurrenez hurren**

Vírgala Mayor / Birgara Goiengo Kontzejuko auzotarren batzarrak kontzejuaren izen ofiziala behin betiko onestea erabaki zuen 2019ko irailaren 5ean. Aurrerantzean izen ofiziala ondokoa izango da: Vírgala Mayor / Birgaragoien Halaber, Vírgala Menor / Birgara Barren herriaren izen ofiziala aurrerantzean Vírgala Menor / Birgarabarren izatea onetsi zen.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuen martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak 4.3 artikuluan eta urriaren 17ko 98/1995 Foru Dekretuak 8. artikuluan (uztailaren 5eko 49/2011 Foru Dekretuak emandako idazketa) xedatutakoarekin bat etorritz.

Gasteiz, 2019ko azaroaren 26a

*Lurralde Orekaren zuzendaria*  
**JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**